

## GIZARTE BABESAREN KONTUA. AURRERAPENA. 2018

## Euskal AEko gizarte-babeseko gastua % 4,0 gehitu zen 2018an

**Zahartzaroa eta Gaixotasuna/Osasun-laguntza funtzioak gastu osoaren % 44,4 eta % 26,4 izan dira, hurrenez hurren, 2018an**

Euskal AEko gizarte-babeseko gastua, Gizarte Babeseko Estatistika Integratuen Europar Sistemaren (SEEPROS) metodologiaren arabera, 18.557 milioi eurora iritsi zen 2018an, aurreko urtean baino % 4,0 gehiago, Eustatek egindako datuen arabera. Hazkunde hori, gainera, 2017an (% 2,5) gertatu zena baino puntu eta erdi handiagoa izan zen. Kopuru absolutuetan, hazkundera 722 milioi eurokoa izan zen; 2017an, berriz, 438 milioi euroko hazkundera gertatu zen.

Gizarte Babesaren Kontuak edozein erakunde publikok edo pribatuk Euskal AEn egindako gizarte-babeseko sistemen gastua eta diru-sarrera zenbatzen ditu. Gainera, gastu horren funtzioak zehazten ditu, eta norik egiten duen ere bai.

### Gizarte-babesaren datu eta adierazle nagusiak Euskal AEn. 2010-2018 (a)

	2010	2016	2017	2018 (a)	2017/2016 (%)	2018(a)/2017 (%)
<b>GIZARTE-BABESEKO GASTUA, GUZTIRA</b>						
Milioi eurotan	16.092	17.397	17.835	18.557	2,5	4,0
Merkatu prezioko BPGaren %an	24,2	24,4	24,2	24,2	-0,2*	0,0*
Biztanleko eurotan	7.410	8.003	8.188	8.496	2,3	3,8
Biztanleko EAP	7.509	8.636	8.741	:	1,2	:
<b>FUNTZIOEN ARABERAKO GIZARTE-PRESTAZIOETAKO GASTUA (milioi eurotan)</b>						
GUZTIRA	15.775	17.132	17.578	18.296	2,6	4,1
Gaixotasuna / Osasun-laguntza	4.443	4.446	4.627	4.839	4,1	4,6
Baliaezintasuna	1.052	1.213	1.239	1.276	2,2	2,9
Zahartasuna	6.004	7.406	7.685	8.124	3,8	5,7
Umezurtz-alargunak	1.473	1.684	1.703	1.764	1,2	3,6
Familia eta seme-alabak	596	602	619	621	2,8	0,3
Langabezia	1.681	1.081	999	954	-7,5	-4,5
Etxebizitzak	118	150	147	160	-2,0	8,7
Gizarte-bazterkeria	408	551	558	558	1,3	0,0
<b>ADIERAZLEAK (eurotan)</b>						
Gizarte-prestazioetako gastua, biztanleko	7.264	7.881	8.070	8.376	2,4	3,8
Gizarte-prestazioetako gastua, biztanleko eta EAPn	7.361	8.504	8.615	:	1,3	:
"Gaixotasun / osasun-laguntzaren" gastua, biztanleko	2.046	2.045	2.124	2.215	3,9	4,3
"Zahartasunaren" funtzioan egindako gastua, 65 urteko edo gehiagoko pertsona bakoitzeko	14.304	15.810	16.163	16.818	2,2	4,1
"Langabeziaren" gastua, erregistratuta dagoen langabetuko	12.693	7.403	7.492	7.729	1,2	3,2
BPG KSE2010. 2015 oinarri (milioi euro)	66.569,4	71.239,0	73.697,4	76.808,7	3,5	4,2
Biztanleria (01-07)	2.171.536	2.173.853	2.178.134	2.184.233	0,2	0,3

(:) Datua ez dago eskuragarri

(\*) aldea ehuneko puntuetan

**Iturria: Eustat. Gizarte-babesaren kontua**

BPGri dagokionez, 2018an gizarte-babeseko gastua % 24,2 izan zen, eta 2017ko ehunekoari eutsi zion. Per capita balioetan, 8.496 eurokoa izan zen gastua, 2017an baino % 3,8 gehiago.


Gizarte-prestazioen balioa 18.296 milioi eurokoa izan zen, behin gastu osotik deskontatu ondoren babes-sistemen kudeaketatik eta administrazioetik eratorritako administrazio-gastuak. 2017ko zenbatekoaren gainean, % 4,1eko hazkundera izan zen.

### **Gastuan pisu handiena izan duten funtzioak "Zahartzaroa" eta "Gaixotasuna/Osasun-laguntza" izan dira, eta horiek ere hazkunde handienekoak gertatu dira**

**Funtzioen araberako gastuaren banaketan**, pisu handieneko funtzioak "Zahartzaroa" (egoitza-zerbitzuetara, etxeko laguntzara eta mendekotasunarekin lotutako prestazio ekonomikoetara bideratutako gastua barne) eta "Gaixotasuna/Osasun-laguntza" izan dira; horiek guztiek batera prestazioetan egindako gastuaren % 70,8 osatzen dute. Gainera, 2018an hazkunderik handiena izan duten funtzioetako bi dira: "Zahartzaroa", % 5,7ko hazkundera, 8.124 milioi eurora iritsita; eta "Gaixotasuna/Osasun-laguntza", % 4,6ko hazkundera, 4.839 milioi eurora helduta. "Etxebizitza" funtzioak izan zuen hazkunde erlatibo handiena (% 8,7), nahiz eta guztizkoarekiko oso pisu txikia izan, funtzio guztien artean txikiena (% 0,9).

Bestalde, pisu handiena galdu zuen funtzioa "Langabezia" izan zen, zeina 2017an prestazioen gastuaren % 5,7 izatetik 2018an % 5,2 izatera igaro baitzen; hau da, Langabezia-gastuak % 4,5 egin zuen behera, eta 954 milioi eurokoa izan zen. Bilakaera negatibo hori 2014. urtetik gertatzen ari da, eta bat dator, aurreko urteetan bezala, langabezia-prestazioen onuradunen beherakadarekin eta langabeziaren jaitsierarekin.

**Gizarte-prestazioetako gastuaren banaketa, funtzioen arabera. 2018 (a))**



Iturria: Eustat. Gizarte-babesaren kontua

Gainerako funtzioek hazkunde positiboak izan dituzte: "Umezurtz-alargunak" funtzioa 1.764 milioi eurora igo zen, % 3,6ko hazkundearekin; "Baliaezintasuna" funtzioa % 2,9 handitu zen, 1.276 milioi eurora iritsiz; "Familia eta seme-alabak" funtzioa (seme-alaben jaiotza-tasari eta hazkuntzari buruzkoa, eta familiako beste kide batzuen) % 0,3 hazi zen 2018an, eta 621

milioi euroko gastua ekarri zuen; eta "Gizarte-bazterketako" gastua mantendu egin zen (% 0,0), 558 milioi eurokoa izanik.

### Erakundeetako unitate taldearen eta urtearen arabeko gastua (milioi €). 2014-2017

	2014	2015	2016	2017	Urteko aldakuntza-tasa %		
					2015/14	2016/15	2017/16
Gizarte Segurantzako sistema eta SEPE	10.272	10.284	10.480	10.815	0,1	1,9	3,2
Euskal administrazioak	5.375	5.512	5.676	5.773	2,5	3,0	1,7
Erakunde pribatuak	1.250	1.261	1.242	1.248	0,9	-1,6	0,5
<b>Gizarte babeseko gastua. Guztira</b>	<b>16.897</b>	<b>17.058</b>	<b>17.397</b>	<b>17.835</b>	<b>1,0</b>	<b>2,0</b>	<b>2,5</b>

Iturria. Eustat. Gizarte-babesaren kontua


2017an gizarte-babeseko gastua egiten duten **unitate instituzionalei** dagokienez (azken urtea da hori behin betiko datu erabilgarriekin), **Gizarte Segurantzaren Sistemak eta Estatuko Administrazioak** egindakoa guztizkoaren % 60,6 izan zen, eta % 3,2 hazi zen 2016arekin alderatuta, hau da, 335 milioi gehiago.

**Euskal AEko Administrazioek** egindako gastua % 32,4 izan zen, eta 5.773 milioi eurora iritsi zen 2017an, 2016an baino % 1,7 gehiago. Zenbateko handiena osasun-sistema publikoaren gastuari dagokio, zeina 3.613 milioi eurora iritsi baitzen 2017an. Gainerako gastua Erakunde pribatuei dagokie, eta horien gastua 1.248 milioi eurokoa izan zen, guztizkoaren % 7.

Europarekiko nazioarteko konparazioak (Eurostatek argitaratutako azken datuak, 2017koak) adierazle batzuk ematen ditu, hala nola **biztanleko gizarte-babesaren gastua**, Erosteke Ahalmenaren Parekotasunean (EAP) neurtuta: Euskal AEn 8.741ekoa izan zen, eta horrek jartzen du EB-28ko batez bestekoaren (8.388) eta Espainia (6.234), Irlanda (7.153) edo Erresuma Batua (7.992) bezalako herrialdeen gainetik. Taularen goiko muturrean daude Luxenburgo (14.901) eta Danimarka (11.737).

Beste adierazleetako bat da **gizarte-babeseko gastua, BPGren ehuneko gisa**. Euskal AEn, 2017an, % 24,2koa izan da, EB-28ko batez bestekoaren azpitik (% 27,9), eta Espainiaren gainetik (% 23,4) eta bai eta Luxenburgoren gainetik ere (% 21,9). Herrialde hori taularen goiko muturrean dago per capita gastuan.

Gizarte babesaren gastua, erosteko ahalmenaren parekotasunean eta BPGrekiko %. 2017



Iturria: Eustat. Gizarte-babesaren kontua eta Eurostat (2020/01/15)

**Informazio gehiago.**

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa zerbitzua: [servicioprensa@eustat.es](mailto:servicioprensa@eustat.es) Tlf: 945 01 75 62